

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko martxoaren 11

35. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko otsailaren 25eko 7/2013 Foru Legea bete dezan. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko Bera-Endarlatsa tartea Nafarroako bide istripuei buruzko azterlanean sar dezan. Mozioa erretiratzea (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak egin al duen edo egitea aurreikusi al duen Ángel Berrueta jaunaren errekonozimendurako ekitaldirik, zio politikoko indarkeriaren biktima izan zen aldetik, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (8. or.).

—Galdera, jakitekoa nola eraginen dien gizarteari eta printzipio demokratikoei, Nafarroako Gobernuaren ustez, herritarrek egoera politiko eta instituzional jasangaitz hau eta desgobernuko 15 hilabete gehiago pairatzera kondenatzeak, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (9. or.).

—Galdera, oinarritzko osasun laguntzako osasun zentroen eta etengabeko eta larrialdiko laguntzarako puntuen ordutegiari, funtzionamenduari eta laguntza-modalitateei buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (10. or.).

—Galdera, ospitale-sukaldeetako zerbitzu-ematearen gaineko satisfazio-inkestei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuko langileen laneko gertakizun, lan istripu eta gaixotasunak aseguratzekeo edo estaltzeko araubideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- Galdera, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Legeko bigarren xedapen gehigarriari atxiki ahalko zaizkion eragiketen eta transakzioen motari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubideko lehenengo faseko zabalpenaren hektarea kopuruari eta haien jabeentzat izanzen dituen eragin ekonomikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, zerga-onurak aztertu eta zerga-erreforma integralean txertatzeko iritziak eta proposamenak biltzeko parte-hartze prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 2014an zehar garatzea aurreikusten duen legegintza-jarduerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, 2013ko aurrekontuko “Toki entitateen kirol jardueretarako laguntzak” kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako eremu ez euskalduneko udalen eta kontzejuen izendapen ofizialei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko gobernuen arteko lan-taldea bat sortzeari buruzkoa, EITBren kanalak normaltasunez ikusi ahal daitezkeen LTD bidez. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Guardia Zibilak D ereduaren inguruan prestatutako txostena dela-eta Nafarroako Gobernuak bere esku duen informazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA **PATXI LEUZA GARCÍA**
JAUNEK AURKEZTUA

82. bis artikulua gehitzeko zuzenketa, "Emandako maileguak", honen barruan: "IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak". Hona testua:

IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak.

"82. bis artikulua. Emandako maileguak.

Foru Komunitateak eta haren mendeko entitateek –enpresa-entitate publikoak, fundazio publikoak eta sozietate publikoak–, kapitulu honetan ezarritakoarekin bat, funtsak utzi ahalko dizkiete maileguan pertsona fisikoei edo juridikoei, publiko nahiz pribatuei, kasuan kasuko mailegu-kontratua eginez.

Zioak: Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, finantza-operazioak, diruzaintza, barne kontrola edo kontabilitatea bezalako oinarrizko alderdiak arautzen ditu.

Finantza-operazioei buruzko tituluan jorratzen dira zorpetze-operazioen auzia (Ogasun Publikoa, mailegu-hartzaile gisa) eta abalena (Ogasun Publikoa, abal-emaile gisa). Halere, ez ditu aztertzen Ogasun Publikoak hirugarrenei emandako maileguak.

Berariazko arau-esparrurik ezean, Nafarroako Gobernuaren eskumena da erabakitzea nori ematen dion mailegua, zenbat ematen duen maileguan eta zer baldintzatan ematen duen mailegua. Jakina, arrazoizkoa da Gobernuak erabakitzeko askatasun-tarte handi bat edukitzea arlo horretan, baina egokia da, orobat, zenbait muga ezartzea, eskumen hori behar bezala erabil dadin.

2. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA **PATXI LEUZA GARCÍA**
JAUNEK AURKEZTUA

82. ter artikulua gehitzeko zuzenketa, "Legezko gaitasuna", honen barruan: "IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak". Hona testua:

IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak.

"82. ter artikulua. Legezko gaitasuna.

1. Foru lege baten bidez baimendu beharko da mailegu-ematea. Horretarako, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak ezarriko du uneoro maileguez izan dezaketen gehieneko arrisku bizia, bai eta kasuko ekitaldian eman ahal izanen den gehieneko mailegu-bolumena ere, bi balio horiek bereiz finkatuta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat, batetik, eta haren menpeko entitateen multzoarentzat –enpresa-entitate publikoak, fundazio publikoak eta sozietate publikoak–, bestetik.

Ulertuko da aurreko lerrokadan aipatzen den gehieneko arrisku bizia dagokiola emandako maileguetatik kobratzeke dagoen printzipalari.

Zioak: Azken aldian harriduraz jakin dugu zer baldintzatan eman zion Nafarroako Gobernuak Tuterako Udalari mailegu bat 2006an, abenduaren 29ko 465/2006 Foru Aginduaren bidez. Diru askoko mailegu bat da, xede jakin baterako, interesik gabekoa, 16 urteko amortizazio-epe bat duena gabealditik aitzina, zeina hasiera batean 4 urtekoa baitzen, baina Gobernuak, 2011n, hiru urte gehiago luzatzea erabaki baitzuen. Mailegu horretan funtsak ematen ziren, gainera, kontratuan ezarritako xederako soilik erabiliko zirela bermatzeko beharrezkoak ziren tresna juridikoak ezarri gabe. Funts horiek, 7 urte igarota, ez dira egiazki erabili aurreikusitako xederako. Hori guztia gutxi balitz bezala, Tuterako Udalak berriro ere eskatu du mailegu horren gabealdia –eta horrenbestez, maileguaren amortizazio-epea– luza dadin. Orain dagoen moduan, 2014an hasi behar da amortizatzen. Argi dago operazio horrek normalizat har litezkeen jarduketa-mugak gainditzen dituela.

Foru lege proposamen honen xedea da egindako akatsetatik irakaspen bat ateratzea eta gutxieneko araubide bat ezartzea, bermatze aldera ez direla berriro ere gertatuko Tuterako Udalari emandako maileguarekin gertatutakoaren moduko egoerak.

3. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
 JAUNEK AURKEZTUA

"IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak" izenekoaren barruan, "Legezko gaitasuna" izenburuko 82. ter artikuluari, 2. idatz-zatia gehitzea. Hona testua:

IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak.

82. ter artikulua. Legezko gaitasuna.

"2. Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisikok edo juridikok ezin izanen du izan aipatutako Aurrekontuei buruzko Foru Legean ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko 5etik gorako zenbatekoa duten maileguen onuradun. Gehieneko arrisku bizia entitate emailearen arabera aintzat hartuko da, hau da, maileguak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren menpeko entitateek emanak izatearen arabera.

Zioak: 82. ter artikulua berria proposatzen duen zuzenketarekin bat, hau da, Nafarroako Ogasun Publikoak maileguak emateko legezko gaitasunaren beharra ezartzen duenarekin, eta espiritu berarekin, horrelako operazioetarako gutxieneko arautze bat egon dadin.

4. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
 JAUNEK AURKEZTUA

"IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak" izenekoaren barruan, "Legezko gaitasuna" izenburuko 82. ter artikuluari, 3. idatz-zatia gehitzea. Hona testua:

IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak.

82. ter artikulua. Legezko gaitasuna.

"3. Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan Nafarroako Foru Komunitateak mailegu-hartzaile gisa formalizatutako azken zorpetze-operazioko interes-tasaren % 50 baino interes-tasa txikiagoa duen mailegu baten onuraduna".

Zioak: 82. ter artikulua berria proposatzen duen zuzenketarekin bat, hau da, Nafarroako Ogasun Publikoak maileguak emateko legezko gaitasunaren beharra ezartzen duenarekin, eta espiritu berarekin, horrelako operazioetarako gutxieneko arautze bat egon dadin.

5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
 JAUNEK AURKEZTUA

"IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak" izenekoaren barruan, "Legezko gaitasuna" izenburuko 82. ter artikuluari, 4. idatz-zatia gehitzea. Hona testua:

IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak.

82. ter artikulua. Legezko gaitasuna.

"4. Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan printzipalaren amortizazio-gabealdia 4 urtetik gorakoa duen mailegu baten onuraduna".

Zioak: 82. ter artikulua berria proposatzen duen zuzenketarekin bat, hau da, Nafarroako Ogasun Publikoak maileguak emateko legezko gaitasunaren beharra ezartzen duenarekin, eta espiritu berarekin, horrelako operazioetarako gutxieneko arautze bat egon dadin.

6. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
 JAUNEK AURKEZTUA

"IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak" izenekoaren barruan, "Legezko gaitasuna" izenburuko 82. ter artikuluari, 5. idatz-zatia gehitzea. Hona testua:

IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak.

82. ter artikulua. Legezko gaitasuna.

"5. Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, Nafarroako Foru Komunitateak ezin izanen du eman xede jakin baterako mailegurik bermerik ezartzen ez duenik, ziurtatzeko ezen lortu nahi den xederako, ez beste ezertarako, baliatuko dituela mailegu-hartzaileak funts horiek".

Zioak: 82. ter artikulua berria proposatzen duen zuzenketarekin bat, hau da, Nafarroako Ogasun Publikoak maileguak emateko legezko gaitasunaren beharra ezartzen duenarekin, eta espiritu berarekin, horrelako operazioetarako gutxieneko arautze bat egon dadin.

7. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
 JAUNEK AURKEZTUA

82. quater artikulua gehitzeko zuzenketa, "Mailegua emateko erabakia", honen barruan: "IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak". Hona testua:

IV. kapitulua: Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak.

"82. quater artikulua. Mailegua emateko erabakia.

1. Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez emanen dira aurreko artikuluan aipatzen diren maileguak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik.

2. Nafarroako Gobernuaren erabakia berariaz operazio bakoitzerako emana nahiz zenbait operazioetarako emana izan ahalko da, eta betiere honako hauek zehaztuko ditu: mailegu-hartzailearen nortasuna, maileguak emateko epea eta gehiengo zenbatekoa, banakakoa edo osotarakoa".

Zioak: Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen gainerakoan aplikatutako teknika juridikoarekin bat etortzeko, lege hori denez aldatu nahi dena.

8. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
 JAUNEK AURKEZTUA

82. quinquies artikulua gehitzeko zuzenketa, "Maileguak formalizatzea", honen barruan: "IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak". Hona testua:

IV. kapitulua: Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak.

"82 quinquies artikulua. Maileguak formalizatzea.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak formalizatuko ditu maileguak, eta erregelamendu bidez ezartzen den moduan dokumentatuko dira".

Zioak: Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen gainerakoan aplikatutako teknika juridikoarekin bat etortzeko, lege hori denez aldatu nahi dena.

9. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
 AURKEZTUA

4. atala aldatzeko zuzenketa, zeina 127.e) artikuluari buruzkoa baita. Hona testua.

Zorpetzeari buruzko kontu orokorra, zeinak informazio xehakaturia izanen baitu, batetik, Nafarroako Foru Komunitatearen zorpetzeari buruz eta, bestetik, haren menpeko entitateen zorpetzeari buruz; betiere, kapitalaren % 100 Nafarroako Gobernuarena bada".

Zioak: Zehaztea menpeko entitate horietako zeini eraginen dien.

10. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

4. atala aldatzeko zuzenketa, zeina 127.e) artikuluari buruzkoa baita. Hona testua.

Emandako abalen egoera-orria, ekitaldian zehar emandako saldo abalatu baimenduetan izandako aldaketak adierazita, informazio xehakak emanez, batetik, Nafarroako Foru Komunitateari buruz eta, bestetik, haren menpeko entitateei buruz; betiere, kapitalaren % 100 Nafarroako Gobernuarena bada".

Zioak: Zehaztea menpeko entitate horietako zeini eraginen dien.

11. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

128. artikuluko azken lerrokada kentzeko zuzenketa.

12. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
JAUNEK AURKEZTUA**

III. tituluan, "Finantza eragiketak", III, kapituluaren ondoren, IV. kapitulu bat gehitzea: "Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak". Hona testua:

"IV. kapitulua. Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak"

Zioak: Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak Nafarroako Aurrekontu Orokorrak, finantza-operazioak, diruzaintza, barne kontrola edo kontabilitatea bezalako oinarrizko alderdiak arautzen ditu.

Finantza-operazioei buruzko tituluan jorratzen dira zorpetze-operazioen auzia (Ogasun Publikoa, mailegu-hartzaile gisa) eta abalena (Ogasun Publikoa, abal-emaile gisa). Halere, ez ditu aztertzen Ogasun Publikoak hirugarrenei emandako maileguak.

Berariazko arau-esparrurik ezean, Nafarroako Gobernuaren eskumena da erabakitzea nori ematen dion mailegua, zenbat ematen duen maileguan eta zer baldintzatan ematen duen mailegua. Jakina, arrazoizkoa da Gobernuak erabakitzeko askatasun-tarte handi bat edukitzea arlo horretan, baina egokia da, orobat, zenbait muga ezartzea, eskumen hori behar bezala erabil dadin.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko otsailaren 25eko 7/2013 Foru Legea bete dezan.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2014ko martxoaren 7an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko otsailaren 25eko 7/2013 Foru Legea bete dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko otsailaren 25eko 7/2013 Foru Legea bete dezan, halako moduz non neurriak hartuko baitira egoera onean dauden elikagai-soberakinak Elikagaien Bankuaren eta gisako entitateen esku jartzeko eta Nafarroan pertsona guztien elikadura egokia eta nahikoa izatea bermatzeko".

Iruñean, 2014ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko Bera-Endarlatsa tartea Nafarroako bide istripuei buruzko azterlanean sar dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeak, 2014ko martxoaren 6an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari zegokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen N-121-A errepideko

Bera-Endarlatsa tartea Nafarroako bide istripuei buruzko azterlanean sar zezan, eta 2014ko otsailaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak egin al duen edo egitea aurreikusi al duen Ángel Berrueta jaunaren errekonozimendurako ekitaldirik, zio politikoko indarkeriaren biktima izan zen aldetik.**PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak egin al duen edo egitea aurreikusi al duen Ángel Berrueta jaunaren errekonozimendurako ekitaldirik, zio politikoko indarkeriaren biktima izan zen aldetik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nabai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, 2014ko martxoaren 13ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Ángel Berrueta jaunaren erailketaren urteurrenaren kariatara, bere senitartekoen eta hurbilekoen nahiz Nafarroako iritzi publikoaren zati handi batek harenganako errekonozimendua erreibindikatu dute, zio politikoko indarkeriaren biktima izan zen aldetik. Nafarroako Gobernuak egin al du edo egitea aurreikusi al du harenganako errekonozimendurako ekitaldirik?

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, jakitekoa nola eraginen dien gizarteari eta printzipio demokratikoei, Nafarroako Gobernuaren ustez, herritarrak egoera politiko eta instituzional jasangaitz hau eta desgobernuko 15 hilabete gehiago pairatzera kondenatzeak.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa nola eraginen dien gizarteari eta printzipio demokratikoei, Nafarroako Gobernuaren ustez, herritarrak egoera politiko eta instituzional jasangaitz hau eta desgobernuko 15 hilabete gehiago pairatzera kondenatzeak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den martxoaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zuek, Nafarroarenak ez diren interesengatik, egoera politiko eta instituzional jasangaitz hau eta desgobernuko 15 hilabete gehiago pairatzera kondenatu dituzue herritarrak. Nafarroako Gobernuaren ustez, horrek nola eraginen die gizarteari eta printzipio demokratikoei?

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, oinarrizko osasun laguntzako osasun zentroyen eta etengabeko eta larrialdiko laguntzarako puntuen ordutegiari, funtzionamenduari eta laguntza-modalitateei buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, oinarrizko osasun laguntzako osasun zentroyen eta etengabeko eta larrialdiko laguntzarako puntuen ordutegiari, funtzionamenduari eta laguntza-modalitateei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin

du, Nafarroako Gobernuak Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bukatu da otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legea betez Osasun Departamentuak osasun-laguntza jarraitu eta urgentearen erreforma-proposamena egiteko epea.

Galdera:

Oinarrizko osasun laguntzako osasun zentroyen eta etengabeko eta larrialdiko laguntzarako puntuen ordutegia eta funtzionamendua eta etengabeko eta larrialdiko laguntzaren modalitateak onesten dituen abenduaren 19ko 131/2012 Foru Dekretuko proposamena mantentzen al du Osasun Departamentuak?

Ezekoan, Osasun Departamentuak zer proposamen dauka oinarrizko osasun laguntzako osasun zentroyen eta etengabeko eta larrialdiko laguntzarako puntuen ordutegiari, funtzionamenduari eta modalitateei dagokienez?

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, ospitale-sukaldeetako zerbitzu-ematearen gaineko satisfazio-inkestei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, ospitale-sukaldeetako zerbitzu-ematearen gaineko satisfazio-inkestei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko abenduaren 20ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera hau egin du: "1.- la urtebete igarota ospitale-sukaldeak pribatizatu zirenetik, Osasun Departamentuak zerbitzu-emateari buruzko inolako satisfazio-inkestarik egin al du profesio-

nalen edo/eta erabiltzaileen artean? Baiezkoan, zeintzuk dira ondorioak? 2.- Osasun Departamentuak eskatu al dio Mediterránea de Catering enpresari, zerbitzu-emateari buruzko inolako satisfazio-inkestarik egin dezan profesionalen edo/eta erabiltzaileen artean? Edo ba al daki enpresak bere kabuz halakorik egin ote duen? Baiezkoan, zeintzuk dira ondorioak?" (PES-00214). Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak:

1. 2013an ez da inkestarik egin.

2. Orain arte ez da inkestarik egin. 2014an zehar Mediterránea de Catering S.A. enpresak inkestak eginen ditu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Nafarroako Gobernu langileen laneko gertakizun, lan istripu eta gaixotasunak aseguratze edo estaltzeko araubideari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernu langileen laneko gertakizun, lan istripu eta gaixotasunak aseguratze edo estaltzeko araubideari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko informazioa eskatu du Nafarroako Gobernu langileen aseguramendu araubideari buruz

(PES 215/2013). Hauxe erantzun du Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

1. Zenbat dira Nafarroako Gobernu langileak ondoko entitate hauetan, laneko gertakizunak aseguratze edo estaltzeko araubidearen arabera?

2013ko datuen arabera, guztira 23.589ra jaitzi da pertsonen kopurua urteko. Hona hemen horien sailkapena, aseguramendu araubideari erreparatuta:

A) Gizarte Segurantzako araubide orokorra: 16.362 dira; horietatik 15.849k Mutua Navarrarekin dituzte estalita lanbide-gertakizunak, eta 513k Nafarroako Gobernu dute entitate autoaseguratzailea.

B) Muface: 5.259 dira; horietatik 5.137 Estatuko Klase Pasiboetakoak dira, eta 122 Gizarte Segurantzako araubide orokorrean daude Klase Pasiboen ondorio hutsetarako (2011ko urtarrilaren 1etik aurrera sartu dira).

C) Mugeju: 390 dira; horietatik 363 Estatuko Klase Pasiboetakoak dira, eta 27 Gizarte Segurantzako araubide orokorrean daude Klase Pasiboen ondorio hutsetarako (2011ko urtarrilaren 1etik aurrera sartu dira).

D) Montepioa: 1.578.

2. Estaldura mota bakoitzeko kotizazioek zer zenbateko ekonomiko egiten dute urtero Nafarroako funtzio publikoarentzat?

2013ko datuen arabera, Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako langileen gizarte kotizazioek kostu hau izan dute:

A) Gizarte Segurantzako araubide orokorra: guztizko kotizazioaren zenbatekoa 138.062.914,70 euro da. Laneko gertakizunei dagokienez, kotizazioak 8.884.815,55 euro egiten du, eta horietatik 101.461,37 euro dagozkie Nafarroako Gobernu autoaseguratzailea duten langileei.

B) Muface: ez da ugazaba-kuotarik ordaintzen Estatuko Klase Pasiboetako langileengatik. Gizarte

Segurantzako araubide orokorrean Klase Pasiboen ondorio hutsetarako dauden langileei dagokienez, kotizazioa 594.467 eurokoa izan da, eta diru kopuru horretatik 13.430,62 euro dagozkio laneko gertakizunengatik kotizazioari.

C) Mugeju: ez da ugazaba-kuotarik ordaintzen Estatuko Klase Pasiboetako langileengatik. Gizarte Segurantzako araubide orokorrean Klase Pasiboen ondorio hutsetarako dauden langileei dagokienez, kotizazioa 116.299,88 eurokoa izan da, eta horietatik 3.885,95 euro dagozkio laneko gertakizunengatik kotizazioari.

D) Montepioa: ez dago ugazaba-kuotarik horrelako langileengatik. Baina Foru Komunitateko Administrazioak Iruñeko Udalarik ugazaba-kuota ordaintzen dio Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzura udal horretatik etorri diren eta haren Montepioan dauden funtzionarioengatik (gaur egun 51 funtzionario gelditzen dira), eta 2013an kuota hori 864.487 eurokoa izan da.

Hori guztia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Legeko bigarren xedapen gehigarriari atxiki ahalko zaizkion eragiketen eta transakzioen motari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Legeko bigarren xedapen gehigarriari atxiki ahalko zaizkion eragiketen eta transakzioen motari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakitekoa nolako eragiketak eta transakzioak aurreikusi dituen Nafarroako Gobernuak, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko bigarren xedapen gehigarriari atxiki ahalko zaizkionak (PES-00219). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak, Ogasun, Industria eta Enpleguak kontseilariak:

Bigarren xedapen gehigarri horrek honako hau dio:

“Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF) izeneko enpresa-entitate publikoari eskualdatzea Estatuko trenbide sarearen titulartasuna, zeinaren administrazioa esleitu baitu.

ADIF enpresa-entitate publikoari egiten zaizkion trenbide azpiegituren eta geltokien eskualdatzeak, Ekintzaileari laguntzeko neurriei eta hazkundera eta lanpostu sorrera bultzatzeari buruzko uztailaren 26ko 11/2013 Legearen 34. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, salbuetsita geldituko dira Foru Komunitateak ordainarazten duen tributu orotik”

Beraz, xedapen gehigarri horretan ezarritako salbuespenari atxiki ahal zaizkion eragiketak 11/2013 Legearen 34. artikuluan aurreikusitakoak dira, hots, trenbide sektorean hartutako neurri batzuen ingurukoak.

Ekintzaileari laguntzeko neurriei eta hazkundera eta lanpostu sorrera bultzatzeari buruzko

uztailaren 26ko 11/2013 Legearen 34.1 artikulua haxe dio:

“Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF) izeneko enpresa-entitate publikoari eskualdatzea Estatuko trenbide sarearen titulartasuna, zeinaren administrazioa esleitu baitu.

1. Estatuaren titulartasuneko sarea osatzen duten trenbide azpiegiturak eta geltokiak, zeinen administrazioa ADIFek esleitu baitu, Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF) enpresa-entitate publikoaren titulartasunekoak izanen dira lege honek indarra hartzen duenetik aurrera”

Beraz, Estatuaren jabetzakoak (eta kasu askotan jabari publikoko ondasunak) diren trenbide azpiegiturak eta geltokiak estatu-erakunde publiko bati, ADIFI, eskualdatzearen ondoriozko eragiketez ari gara. Eragiketa horiek direla medio, Estatuaren titulartasuneko sarea, zeinaren administrazioa ADIFek esleitu baitu, osatzen duten trenbide azpiegiturak eta geltokiak azken horren titulartasunekoak izatera igarotzen dira.

Eragiketa horiek, Estatuko araudiarekin bat, Estatuko, autonomia erkidegoetako edo tokiko zerga guztietatik salbuetsita daude, baita fedemaile publiko, jabetza-erregistratzaile eta merkataritzako erregistratzaileen arantzel edo ordainsariatetik ere.

Ikus, horri dagokionez, aipatutako 11/2013 Legearen 34.3 artikulua:

“3. Xedapen honen ondorioz egiten diren eskualdaketa Estatuko, autonomia erkidegoetako edo tokiko zerga guztiak, autonomia erkidegoei lagatako tributuak barne, ordaindu beharretik salbuetsiko dira beti, eta ezin izanen zaie aplikatu Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 9.2 artikuluan xedatzen duena.

Eskualdaketa, egintza edo eragiketa horiek, halaber, fedemaile publiko, jabetza-erregistratzaile eta merkataritzako erregistratzaileen jardunarengatik arantzel edo ordainsariak ordaindu beharretik salbuetsiko dira”

Horiek horrela, badirudi erabat justifikatua dagoela Nafarroako Parlamentuak antzeko neurri bat hartu izana Nafarroako Foru Komunitatean.

Ohartarazi beharra dago, bestalde, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan ez litzatekeela beharrezkoa izanen neurri hori, Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko testu bateginaren bosgarren xedapen gehigarriak ADIFentzako salbuespen subjektiboa ezartzen baitu. Hala ere, eragiketa horietan bestelako tributuak sor daitezkeela kontuan izanik, egoki iritzi zaio salbuespen zabalago hori ezartzeari.

Laburbilduz, Nafarroako Gobernuak aurreikusi du Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF) enpresa-erakunde publikoari Estatuko tren-

bide sarearen titulartasuna eskualdatzearekin zerkusua duten eragiketa eta transakzioak atxiki ahal izanen zaizkiola Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 38/2013 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Ubideko lehenengo faseko zabalpenaren hektarea kopuruari eta haien jabeentzat izanen dituen eragin ekonomikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Ubideko lehenengo faseko zabalpenaren hektarea kopuruari eta haien jabeentzat izanen dituen eragin ekonomikoei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatzizko galdera egin du Nafarroako Ubideko lehenengo faseko zabalpenaren hektarea kopuruari eta haien jabeentzat izanen dituen eragin ekonomikoei buruz ((8-13-PES-00221). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak:

– “Nafarroako Ubideko 1. fasea handitzeko eta 2. fasea zehazteko lanetarako laguntza teknikoa, 2011ko urria” izeneko dokumentutik atera da beheko taula. INTIAk egin du dokumentu hori, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak eskaturik.

Actuaciones por términos municipales	Modernizaciones de regadíos tradicionales con presión natural (MRTPN)	Transformaciones con presión natural (TPN)	Transformaciones con bombeo (TB)	Mejora energética de riegos a presión (MERP)	Totales (ha)
Andosilla	90		438	905	1.433
Azagra				1.245	1.245
Berbinzana	308				308
Cárcar	687	553		1	1.241
Falces	950				950
Funes	800			802	1.602
Larraga	594	1.636			2.230
Lerín	825	259		119	1.203
Lodosa		230			230
Mendigorría		402			402
Miranda de Arga	478	578			1.056
Oteiza		298			298
Peralta	1.363				1.363
San Adrián		100		691	791
Sesma		923			923
Totales (ha)	6.095	4.979	438	3.763	15.275
% de cada tipo de actuación	39,9	32,6	2,9	24,6	15275,0

Laburbilduz, guztira 9.858 hektarea bihurtu dira ureztalur jadanik (6.095 hektareatan ohiko ureztaketa modernizatu da presio naturalarekin, eta 3.763 hektareatan presiozko ureztaketaren hobekuntza energetikoa egin da), hots, proiektuaren azaleraren % 64,5.

Azpimarratu behar da, ordea, ureztalur hitzak errealitate desberdin asko biltzen dituela. Ohiko ureztalurrak urteetan eta, zenbait kasutan, mendeetan zehar eratuz joan dira, eta horregatik banaka harturik aztertu behar dira.

- Batzar orokorretan eta informazio batzarretan ureztatzaileei ematen zaien informazioa labur azalduko da ondoren.

Proiektuan sartutako hektarea berri bakoitzeko, Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko 1/2002 Foru Legearen arabera, nekazariak 793 euro aurreratu behar ditu hektareako, interes orokorreko obregatik. Lurzatiko ekipamenduaren kostua 2.700 - 3.853 €/ha bitartekoa izan daiteke, kontuan izanik ogibide nagusia nekazaritza den ala ez, eskualde behartsua den ala ez, eta lurzatian zein ureztatzesistema aukeratu den.

Galderan aipatu diren ustiapen kostu gehigarriek ez dute zertan izan oraingoak baino handiagoak (kasu askotan oraingo sistemak zaharkituta daude), handitzearen eremuko ureztatzaileen

elkarteei kontratua sinatzen dutelako kontzesio-hartzailearekin; hala, kostu horiek aldeztatik aurretik zehazturik daude 30 urterako. Kasu gehienetan oraingo kostuak baino txikiagoak dira, ureztatzesare zaharrak eta eskala-ekonomiarik gabekoak (elkarte bakoitzak berea dauka) mantentzeak kostuen garestitzea baitakar.

Nekazariarentzat eta kontzeptuka, zenbateko hauek erabiltzen dira:


- Itoizko erregulazio kanona: 34 €/ha urtean; 2050ean azkenduko da, urtegia erabat amortizatu-takoan.

- Nafarroako Ubideko ureztaketa eskubidea: 89,52 €/ha urtean, KPlaren arabera egunera daitekeena.

- Nafarroako Ubideak ematen duen ura: 0,02673 €/m³, KPlaren arabera egunera daitekeena.

- Kontzesio-hartzaileek ureztatzesareen mantentzea ordaintzea: 49 €/ha.

- Batez besteko 6.300 m³/ha-ko kontsumoak gutxi gorabehera hektareako 341 euroko kostua izan du 2013an. Ebroren arroko beste sistema hidrauliko garrantzitsu batzuen aldean Nafarroako Ubidekoa oso lehiakorra da (2011ko grafikoa).



– Jabeek aurreztu eginen dute egungo mantentze kostuetan eta energia kostuetan. Horiek ez dira kasu guztietan ezabatuko, baina txikiagoak izanen dira, eta kontzesio-hartzaileak kontrolatu eginen ditu, bere diru-sarrerak neurri handian mantentze onaren menpe egonen direlako. Mantentze hori kontzesio-lehiaketan azalduta adierazleak bitartez ebaluatuko da.

– Bestalde, badira ureztalurren modernizazioari lotutako zenbait abantaila diru kontuetan ere eragina badutenak, baina ez horretan bakar-bakarrik. Ondoren horietako batzuk azalduko dira, preziozko ureztatze sistemaren aldaketari lotuak:

1. Uraren kostuan aurreztea, uraren erabilera hobeki egokitu ahal zaielako lurzuaren hezetasun baldintzei eta laboreen beharrei.
2. Denbora aurreztea ureztatze lanetan, sistema automatizatuak (lurzatiko programatzaileak) erabiltzen direlako, nekazaria lurzatian egotea eskatzen ez dutenak.
3. Lurzatira joan-etorri gutxiago egitea, bertan egoteko behar txikiagoa dagoelako, edo erregai

gutxiago kontsumitzea eta, ondorioz, kostuak murriztea.

4. Bide sarea berrituta, denbora gutxiago ematea garraio lanetan. Horrela erregai gutxiago kontsumitzen da eta kostu txikiagoa dago.

5. Ongarria hobeki kontrolatzen da eta laborearen beharrei egokitzen zaie; horrela materialen eta giza baliabideen aurrezpena eta ur kontsumo txikiagoa lortzen dira, eta, horrenbestez, kostu txikiagoa.

6. Uraren erabilerearen kontrol handiagoari esker hobetu egin daitezke laborearen faseetako batzuk, hala nola ernamuntzea edo uzta biltzea, eta lan jakin batzuk, esaterako jorreketa, tratamendu fitosanitarioak eta abarrekoak. Horrela kostuak murrizten dira.

7. Nekazaritzako lanetan denbora gutxiago ematen da, modernizazioa lurzati-berrantolatamenduari lotuta dagoelako. Izan ere, berrantolatutako lurzati formari eta neurriei esker erregai kontsumo espezifikoak murriztu egiten dira.

8. Lehendik dagoen labore sortari, presiozko ureztaketara hobeki moldatzen diren laboreak gehitzen zaizkio. Nekazaritzako industriarekin akordioak egin daitezke presiozko ureztaketa horretan aukera gehiago izan daitezen, grabitatezko ureztaketarekin kontrastean, dibertsifikaziorako ahalmen handiagoa sustatuz⁽¹⁾, bai eta hektareako marjina gordinen gehikuntza eta lanpostuak sortzeko ahalmen handiagoa ere.

9. Tarifa binomikoa (hektareako oinarri finkoa eta kontsumoaren arabeko kopuru aldakorra) aplikatu ahal izanen denez, eraginkortasuna hobetzeko interes handiagoa izanen da⁽²⁾.

10. Aisia balioestea gaurko gizartearen oinarriko aktibo gisa. Ez da ahaztu behar nekazaritza sektoreak eskura izan behar dituela gainerako herritarrek dituzten onura berak.

11. Ureztatzaileei aholku ematea ahalbidetzen du, kontrol eta neurketarako elementuak direla medio. Horrela hobetu egiten dira uraren, ongariaren eta fitosanitarioen erabilera.

12. Eremu modernizatuen inguruko lurraldean ur horniduraren murrizketak ezarriko balira, modernizazioak onura gehigarria sortu ahalko luke: horniduraren murrizketak eragindako ustiatagietako ekoizpenak bermatzea osorik edo zati batean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 29an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, zerga-onurak aztertu eta zerga-erreforma integralean txertatzeko iritziak eta proposamenak biltzeko parte-hartze prozesuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, zerga-onurak aztertu eta zerga-erreforma integralean txertatzeko iritziak eta proposamenak biltzeko parte-hartze prozesuari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak planteatu duen zerga-erreformarekin lotutako gai batzuk ezagutze aldera (PES-00216). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Zerga-erreformari buruzko proposamenak egiteko abian jarri den parte-hartze prozesuan parte hartzera (2013ko azarotik aurrera) gonbidatu dira

(1) Funesko (Nafarroa) adibidea nabarmena da: grabitatez ureztatutako eremuan, ohiko ureztalurretan (900 ha), azaleraren % 55 artoak hartzen du, % 10 bazka-laboreek eta labore industrialek eta % 35 barazkiek. Funesko ordokian eskatu ahalako ureztaketa duen eremu berrian, 1997an artoak % 35 hartzen zuen, mahastiak % 27, barazkiek % 11, fruta-arbolek % 10, tomateak % 10, babarrunak % 3, zainzuriak % 2 eta bazka-laboreek % 1. Gainera, urteko laboreak dituen eremuaren % 63an bi uzta ateratzen dira (ilarra edo ziazerba).

(2) Nafarroan jada tarifa hori erabiltzen da El Ferial izeneko eremu eraldatu berri batean. 6.400 m³/ha-ko kontsumotik gora prezioa 5 aldiz handiagoa da. Frantzian ere aplikatu izan da, ingurumen arloko xede zehatzago baterako. Ikus Montginoul M., Rieu T., "An economic approach to conciliate irrigation and environment in the Charente River Basin, France". GRID. 1997ko abendua.

Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kideak. Kontseiluan 14 entitatek laguntzen dute, eragile ekonomiko eta sozialen, herritarren, udalerrien eta hainbat elkarte eta unibertsitateen ordezkari gisa.

EGKn honako entitate hauek daude, Gobernuaren ordezkarietaz gainera:

- Nafarroako Enpresaburuaren Konfederazioa, Emakumezko Enpresaburu eta Zuzendarien Elkar-
tea.

- UGT
- CCOO
- ELA
- LAB
- UAGN
- EHNE
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUKF)
- Nafarroako Lan Enpresen Elkar-
teia (ANEL)
- Nafarroako Nekazaritza Kooperatiben Batasuna (UCAN)
- Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (REAS)
- Irache kontsumitzaile-elkar-
tea
- NUP

Halaber prozesu honetan parte harrarazi zaie (2013ko azaroan) Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluaren ordezkarietaz, Nafarroako eragile ekonomiko eta sozial adierazgarrienak kontseilu horretan baitaude, eta honako hauei ere bai:

- Nafarroako Autonomoen Sektore Arteko Elkarteari (CEAT-Nafarroa),

- Nafarroako Langile Autonomoen Elkarteari (ATA-Nafarroa),

- eta Nafarroako Profesional eta Langile Autonomoen Batasunari (UPTA-Nafarroa).

Aurreikusita dago, horrez gain, hainbat topaketa eta bilera egitea Nafarroako enpresek eta enpresa-elkarteekin eskualdeka (otsailean), proiektu hau Nafarroako alde guztietara hedatzeko. Herritarrek parte hartzeko mekanismo bat abiatuko da eta gaian adituak diren profesionalen talde baten laguntza jasoko da (otsailean).

Hartara, otsailean behar diren jarduketak eginen dira eragile guztiek beren iradokizun eta alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten proiektatutako zerga-erreformaren inguruan. Gero, proposatutako neurrien balorazioa egingen da, ekainean hura aurkeztu ahal izateko.

Zerga-erreforma integralaren bidez lortu nahi da gure zerga-sistema gai izan dadila ekonomiari pizgarriak emateko eta enpresa berrien erakarpena sustatzeko, gure autogobernua baliatuz. Kontsumoari ere pizgarriak eman nahi zaizkio, eta ez dira zergak igo nahi. Zerga-onurei dagokienez, gaur egungoak berrikusi nahi dira, ikusteko ea egokia den haiek mantentzea, aldatzea edota handitzea.

Den-denak jasotzeko asmorik gabe eta adibide gisa, hona hemen berrikusi litezkeen egungo zerga-onura batzuk:

1. PFEZa
1.1. Zerga-oinarriaren murrizketak
1.1.1. Salbuespena, ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik
1.1.2. Gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak
1.1.3. Etxeko langileen Gizarte Segurantzako kotizazioak
1.1.4. Salbuespena, atxikitako elementuetan berrinbertitzeagatik
1.1.5. Murrizketa, etxebizitzaren errentamenduarengatik
1.1.6. Alderdi politikoei egindako ekarpenak
1.2. Kuota osoko kenkariak
1.2.1. Ohiko etxebizitzarengatik
1.2.1.1. Alokairuarengatik
1.2.1.2. Erosi edo zaharberritzeagatik
1.2.2. Enpresa eta lanbide jarduera
1.2.2.1. Inbertsioak
1.2.2.2. Enplegua sortzea
1.2.3. Beste kenkari batzuk
1.2.3.1. Interes kulturalerako ondasunak
1.2.3.2. Dohaintzak
1.2.3.3. Lanarengatik kenkaria
1.2.3.4. Hobaria atxikipenean, eta beste batzuk
1.2.4. Alargun-pentsioak
1.2.5. JEZeko kuoten kenkaria
2. ONDAREAREN GAINEKO ZERGA
3. SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGA
3.1. Doikuntzak zerga-oinarrian
3.1.1. Erreserba berezia
3.1.2. Amortizazio askatasuna
3.1.3. Berrinbertsioagatik salbuespena
3.2. Tasa bereziak
3.3. Hobariak kuotan
3.4. Kenkariak kuota osoan
3.4.1. Inbertsioak. Enplegua sortzea
3.4.2. I+G+B
3.4.3. JEZeko kenkaria
4. EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA
5. OINORDETZA ETA DOHAINZTEN GAINEKO ZERGA
6. ZUZENEKO ZERGA
7. BEZa
7.1. Salbuespenak
7.2. Tasa oso murriztua: % 4
7.3. Tasa murriztua: % 10
8. OND. ESK. ETA EGINTZA JUR. DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA
9. ZERGA BEREZIAK
9.1. Alkohola eta garagardoa
9.2. Garraioa
9.3. Hidrokarburoak
9.4. Elektrizitatea
10. I. ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA

Azkenik, adierazten dizut ez dela aurreikusten prozesu hau burutzeko gastu gehigarririk.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 29an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Gobernuak 2014an zehar garatzea aurreikusten duen legegintza-jarduerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak 2014an zehar garatzea aurreikusten duen legegintza-jarduerari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2014an zehar garatu beharreko legegintza-jarduerari buruz (PES-00220). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak 2014ko ekitaldirako aurreikusten duen legegintza-jarduera eta horren gutxi gorabeherako kronograma honako hauek dira, uneotan:

- Hirigintza Iraunkorrari buruzko Foru Lege proiektua, bigarren seihilekorako aurreikusia.
- Liburu Digitalaren Sustapenari eta Doako Ezarpenari buruzko Foru Lege proiektua, lehen seihilekorako aurreikusia.
- Nafarroako Nekazaritza Ustiatzearen Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina on-

ten duen 150/2002 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea. 2014ko urria.

- Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testu bategina onesten duen otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea. 2014ko ekaina.

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua, Nafarroako toki entitateetan gardentasuna eta Gobernu Irekia ezartzea helburu duena. 2014ko martxoa.

- Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtzaren zenbatekoa eta transferentzia arrunten bidez hura banatzeko formula ezartzen dituen Foru Lege proiektua. 2014ko ekaina.

- Argiteria Gaueko Ingurumena Babestearren Antolatzeari buruzko azaroaren 9ko 10/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua.

- 2013ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. 2014ko ekainaren 30a.

- 2015erako Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektua. 2014ko azaroaren 1a.

- Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzeko proiektua. Bi urteko epea dago Europako Erkidegoko hainbat zuzentzauren transposizioa egiteko.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzei buruzko Foru Lege proiektua. 2014ko azaroaren 1a.

- Jakinarazpen Telematikoa eta Aurkezpen Telematikoa arautzen dituen Foru Lege proiektua. Martxoaren 11a.

- Zerga Erreforma Integralari buruzko Foru Lege proiektua. Ekaina.

- Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua. Parlamentu-izapideei ekiteko eguna adostu behar da NUKFrekin eta Toki Administrazioarekin.

- Hitzartzen diren zerga berriei buruzko bera-riazko foru legeen proiektuak. Hitzarmen Ekonomi-koaren aldaketa onetsitakoan ezarriko da parla-mentu-izapideei ekiteko eguna.

- Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua, arau-hausteengatiko zehapenen araubidea aldatzekoa. 2014ko apirilera aurreikusten da.

- Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Babesteari buruzko 7/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua, kontsumitzaileekiko merkataritza-

jardunbide desleialen tipifikazioa eranstea xede duena. 2014ko apirilera aurreikusten da.

- Desgaitasuna duten Nafarroako Pertsonen Eskubideei eta haiek Gizarteratzeari buruzko Foru Lege proiektua, 2014ko bigarren seihilekorako aurreikusia.

- Berdintasunari buruzko Foru Lege proiektua, 2014ko azken hiruhilekorako aurreikusia.

- Genero Indarkeriaren Biktimei buruzko Foru Lege proiektua, 2014ko azken hiruhilekorako aurreikusia.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 194. artikulua bete-zeko.

Iruñean, 2014ko otsailean. Bigarren lehendaka-riorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Era-kunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sán-chez de Muniáin Lacasia

Galdera, 2013ko aurrekontuko “Toki entitateen kirol jardueretarako laguntzak” kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku- luan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Par- lamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ai- tziber Sarasola Jaca andreak egindako galderaren erantzuna, 2013ko aurrekontuko “Toki entitateen kirol jardueretarako laguntzak” kontusailari buruz- koa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parla- mentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parla- mentari Aitziber Sarasola Jaca andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “Toki entitateen kirol jardueretarako laguntzak” kontusailari buruz (8- 13/PES-00217). Hauxe erantzun dio Gizarte Politi- ketako kontseilariak:

Deialdi horren xedea da lehia-araubidea ezar- tzea Nafarroako toki entitateei diru-laguntzak ema- teko, beren kirol ekintzak susta ditzaten.

Bi motatako diru-laguntzak dira:

- Adinekoentzako jarduera fisikoa.

Adinekoen kirol jarduera sustatze aldera, aur- kezten diren eskaeren artean aintzat hartuko dira 65 urtetik gorakoentzat soilik diren jarduera fisiko- ak garatzen dituzten eta II. eranskinako 3.1 oina- rrian eskatutako baldintzak betetzen dituzten toki entitateen proposamenak.

- Kirol mankomunitateen jarduera arrunten pro- grama.

Atal honetako laguntzak kirol teknikaria badu- ten kirol mankomunitateei eman ahal zaizkie, kirol mankomunitatearen programazioan egonkortasu- nez eta etenik gabe gara daitezkeen eta herritar guztientzat diren kirol jardueretarako.

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak aztertu egin ditu garatu beharreko programak, zein beren kontusailarekin, premia handienekoak eta ahalik eta pertsona gehien kirol anitzetan aritu ahal izateko bide emanen dutenak lehenesteko. Halaxe adierazi zuen Batzordean NKGIko zuzen- dari kudeatzaile Pruden Indurain jaunak, iragan urtarrilaren 15ean.

2014an ere lan eginen dugu Nafarroan kirola modu egokian garatzen jarraitzeko, azaltzen diren eskariei egokituta, eta jada 2013an egin diren programei eta jarduerari eusteko.

Kontuan izanik, ordea, diru-sarreraren kapituluaren bilakaera ez dela izan espero zen bezalakoa,

adinekoentzako jarduera fisikoaren atala hornitu da, 30.649,95 euro bideratuz atal horretara. Onuradunak 30 toki entitate izan dira; guztira 45 taldek eta 800 bat parte-hartzailek jaso dute diru-laguntza.

TOKI ERAKUNDEAK	PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA	Taldeen kopurua
ABLITAS	14	1
ANDOSILLA	22	1
ANTSOAIN	37	2
ARTIKA	13	1
AGOITZ	9	1
AZAGRA	33	2
BARASOAIN	12	1
BEIRE	15	1
BERRIOZAR	18	1
BURLATA	64	3
CASCANTE	14	1
OLTZA ZENDEA	11	1
ESPRONTZEDA	7	1
ESTERIBAR	40	3
ENERITZ	13	1
UHARTE	25	2
IRURTZUN	10	1
LERIN	31	2
MARTZILLA	18	1
MENDIGORRIA	21	1
MONTEAGUDO	22	1
NOAIN	12	1
OBANOS	19	1
GARES	37	2
RIBAFORADA	13	1
SARTAGUDA	23	1
TAFALLA	114	6
URROTZ	13	1
ATARRABIA	37	2
ZIZUR NAGUSIA	24	1
GUZTIRA	741	45

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko otsailaren 4an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Nafarroako eremu ez euskalduneko udalen eta kontzejuen izendapen ofizialei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako eremu ez euskalduneko udalen eta kontzejuen izendapen ofizialei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako eremu ez-euskalduneko udalen izendapen ofizialen zerrenda eskatzeko, eta kontzejuen izendapen ofizialena ere bai, udalerrri konposatuen kasuan (8-14/PES-00001). Jasotako informazioa ikusirik, hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak:

IZEN OFIZIALAK

ABÁIGAR
 ABERIN
 Arínzano
 Caserío de Echávarri
 Muniáin de la Solana (hiriburua)
 ABLITAS
 ADIÓS
 Larráin
 AGUILAR DE CODÉS
 AIBAR<>OIBAR
 ALLÍN<>ALLIN
 Amillano
 Aramendía
 Arbeiza
 Artavia
 Echávarri
 Eulz
 Galdeano
 Larrión (hiriburua)
 Muneta
 Zubielqui
 ALLO
 AMÉSCOA BAJA

Artaza
 Baquedano
 Baríndano
 Ecala
 Gollano
 San Martín de Améscoa
 Urrea
 Zudaire (hiriburua)
 ANCÍN<>ANTZIN
 Ancín
 Mendilibarri
 ANDOSILLA
 AÑORBE
 ARANARACHE<>ARANARATXE
 ARAS
 LOS ARCOS
 ARELLANO
 ARGUEDAS
 ARMAÑANZAS
 ARRÓNIZ
 ARTAJONA
 ARTAZU
 AYEGUI<>AIEGI
 AZAGRA
 AZUELO
 BARÁSOAIN
 BARBARIN
 BARGOTA
 BARILLAS
 BEIRE
 BERBINZANA
 BIURRUN-OLCOZ
 Olcoz
 Biurrun
 Estación Biurrun-Campanas
 Fundación Ondarra
 BUÑUEL
 EL BUSTO
 CABANILLAS
 CABREDO
 CADREITA
 La Estación
 CAPARROSO
 La Estación
 CÁRCAR
 CARCASTILLO

La Oliva	GENEVILLA
Figarol	GUIRGUILLANO
CASCANTE	Arguiñáriz
CÁSEDA	Echarren de Guirguillano (hiriburua)
San Isidro del Pinar	Guirguillano
CASTEJÓN	IBARGOITI
Giraldelli	Abínzano
CASTILLONUEVO	Celigüeta
CINTRUÉNIGO	Idocin (hiriburua)
CIRAUQUI<>ZIRAUKI	Izco
CORELLA	Lecáun
CORTES	Salinas de Ibargoiti<>Getze Ibargoiti
DESOJO	Sengáriz
DICASTILLO	Vesolla
NOÁIN (VALLE DE ELORZ)<>NOAIN (ELOR- TZIBAR)	Zabalza de Ibargoiti
Elorz/Elortz	IGÚZQUIZA
Ezperun	Azqueta
Guerendiáin	Igúzquiza
Imárcoain	Labeaga
Noain (hiriburua)	Urbiola
Óriz	IZAGAONDOA
Otano	Ardanaz de Izagaondoa (hiriburua)
Torres	Beroiz
Yárnoz	Guerguitiáin
Zabalegui	Idoate
Zulueta	Induráin
ENÉRIZ<>ENERITZ	Iriso
ESLAVA	Lizarraga de Izagaondoa
ESPRONCEDA	Reta
ETAYO	Turrillas
Learza	Urbicáin
EULATE	Zuazu
EZPROGUI	Izánoz
Ayesa	Mendinueta
Moriones (hiriburua)	JAVIER
FALCES	LANA
FITERO	Galbarra (hiriburua)
FONTELLAS	Gastiáin
El Bocal	Narcué
FUNES	Ulibarri
FUSTIÑANA	Viloria
El Ginestar	LAPOBLACIÓN
Torre de Leoz	Lapoblación
GALLIPIENZO<>GALIPENTZU	Meano (hiriburua)
Gallipienzo Nuevo	LARRAGA
GALLUÉS<>GALOZE	LARRAONA
Gallués<>Galoze	LAZAGURRÍA
Iciz<>Izize	LEACHE<>LEATXE
Izal<>Itzalle	LEGARDA
Uscarrés<>Uskartzte	LEGARIA
GARÍNOAIN	LEOZ<>LEOTZ
	Amátriain

Amunarrizqueta	MENDAVIA
Artáriain	Imas
Benegorri	MENDAZA
Bézquiz	Acedo
Iracheta	Asarta
Iriberry	Mendaza
Leoz	Ubago
Maquírriaín	MENDIGORRÍA
Olleta	Muruzábal de Andión
Sánsoain	Nuestra Señora de Andión
Sansomain	METAUTEN
Uzquita	Arteaga
LERGA	Ganuzá
LERÍN	Metauten
LIÉDENA	Ollobarren
LODOSÁ	Ollogoyen
LÓNGUIDA<>LONGIDA	Zufía
Akotain	MILAGRO
Aos (hiriburua)	MIRAFUENTES
Artajo<>Artaxo	MIRANDA DE ARGÁ
Ayanz<>Aiantz	Vergalijo
Ekai de Lónguida<>Ekai-Longida	MONREAL
Erdozáin<>Erdotzain	MONTEAGUDO
Ezkai	MORENTIN
Górriz<>Gorritz	MUÉS
Itoiz<>Itoitz	Cábrega
Javerri<>Xaberri	MURCHANTE
Larrángoz<>Larrangotz	MURIETA
Liberri	MURILLO EL CUENDE
Meoz<>Meotz	Murillo el Cuende
Mugueta<>Mugeta	Rada
Murillo de Lónguida<>Murelu-Longida	Traibuenas
Olaverri<>Olaberri	MURILLO EL FRUTO
Oleta	MURUZÁBAL
Orbáiz<>Orbaitz	NAVASCUÉS<>NABASKOZE
Rala<>Errala	Aspurz
Uli-Bajo<>Ulibeiti	Navascués
Villanueva de Lónguida<>Hiriberri-Longida	Racas Alto
Villaveta<>Billabeta	Ustés
Zarikieta	NAZAR
Zuasti de Lónguida<>Zuasti-Longida	OBANOS
Zuza<>Zutza	OCO
LUMBIER	OLEJUA
LUQUIN	OLITE<>ERRIBERRI
MAÑERU	OLÓRIZ<>OLORITZ
MARAÑÓN	Bariáin
MARCILLA	Echagüe
La Azucarera	Eristain
Contiendas	Mendivil
El Olmar	Olóriz
El Soto	Oricin
MÉLIDA	Solchaga

ORÍSOAIN
 OTEIZA
 PERALTA<>AZKOIEN
 PETILLA DE ARAGÓN
 PIEDRAMILLERA
 PITILLAS
 PUEYO
 RIBAFORADA
 ROMANZADO
 Adansa
 Arboniés
 Bigüézal
 Domeño (hiriburua)
 Iso
 Napal
 Orradre
 Usún
 Berroya
 Murillo-Berroya
 SADA
 SAN ADRIÁN
 SANGÜESA<>ZANGOZA
 Gabarderal
 Rocaforte
 SAN MARTÍN DE UNX
 SANSOL
 SANTACARA
 SARTAGUDA
 SESMA
 SORLADA
 TAFALLA
 TIEBAS-MURUARTE DE RETA
 Tiebas (hiriburua)
 Muruarte de Reta
 Campanas
 TIRAPU
 TORRALBA DEL RÍO
 Otiñano
 Nuestra Señora de Codés
 TORRES DEL RÍO
 TUDELA
 TULEBRAS
 ÚCAR
 UJUÉ
 UNCITI
 Alzórriz
 Artáiz
 Cemboráin
 Najurieta
 Muguetajarra
 Unciti
 Zabalceta

Zoroquiáin
 UNZUÉ<>UNTZUE
 Carrascal
 URRÁUL ALTO
 Adoáin
 Arieltz
 Aristu
 Ayechu
 Elcóaz
 Epároz
 Ezcániz
 Guíndano
 Imirizaldu
 Irurozqui (hiriburua)
 Jacoisti
 Larequi
 Larráun
 Ongoz
 Ozcoidi
 Zabalza
 Artanga
 URRÁUL BAJO
 Aldunate
 Artieda
 Grez
 Nardués-Aldunate
 Nardués-Andurra
 Rípodas
 San Vicente (hiriburua)
 Sansoáin
 Tabar
 URROZ-VILLA
 UTERGA
 VALTIERRA
 VIANA
 VILLAFRANCA
 VILLAMAYOR DE MONJARDÍN
 VILLATUERTA
 Legardeta
 YESA
 Leyre
 Urbanización Lasaitasuna
 Urbanización Náutica de Leyre
 ZÚÑIGA
 BERIÁIN

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 7an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko gobernuen arteko lan-talde bat sortzeari buruzkoa, EITBren kanalak normaltasunez ikusi ahal daitezen LTD bidez.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, LTD bidez EITBren kanalak normaltasunez ikusi ahal daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko gobernuen arteko lan-talde bat sortzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroan ETB ikusi ahal izateko lan-taldearen inguruko zenbait gairi buruz (PES-00218). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eldun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuen arteko lan-taldeak 2014ko urtarrilaren 17an egin zuen bere lehen bilera lege-aukerak eta bide tekniko eta politikoak aztertzeke, aurrera egin nahian, Nafarroako interesen defentsa barruan hartuko duen konponbide egoki baten bila, EAEko telebista publikoa Foru Komunitatean ikusi ahal izan dadin.

Helburu hori bete ahal izateko, bi gobernuak hitzartu zuten une bakoitzean jorratu beharreko gaien arabera izendatuko zirela parte-hartzaileak. Nafarroako Gobernutik hauek joan ziren lehenbiziko bilerara: bigarren lehendakariorde eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria, Juan Luis Sánchez de Muniáin; Komunikazioko zuzendari nagusia, Edurne Elío; eta Departamentuko idazkari tekniko nagusia, Alfredo Huarte. Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Administrazioeko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordea, Carmelo Arcelus; Lehendakariorde idazkari nagusia, Jesús Peña Martínez; eta EITBko Ustiapen eta Ingeniaritzako zuzendaria, Mikel Agirre.

Bilera hartan, kontseilari honek iragan urtarrilaren 17an Parlamentuko Kultura Batzordean jakinarazi zuen bezala, Nafarroako Gobernuak Eusko Jaurlaritzaren ordezkariari eskatu zien txostena egin zedila EAEko telebista publikoak antza denez Foru Komunitatean hedatu duen sareaz eta horren lege-egoeraz.

Egoeraren lege-inguruabarrei eta alderdi teknikoari buruzko azterketaren eta horretatik ateratzen diren ondorioen arabera zehaztuko dira hurrengo bileretarako agenda eta egutegia.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailean

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Guardia Zibilak D ereduaren inguruan prestatutako txostena dela-eta Nafarroako Gobernuak bere esku duen informazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Guardia Zibilak D ereduaren inguruan prestatutako txostena dela-eta Nafarroako Gobernuak bere esku duen informazioari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak

idatziz erantzuteko galdera egin du Guardia Zibilak egindako txostenari buruz (PES-00002). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Barne Ministerioak berariaz adierazi zuen txosten hori isilpekoa zela, eta ohartarazi zuen egungo legeriak mugak jartzen dizkiola agiri sailkatuen gaineko informazioaren hedapenari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailean

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia